

Kanalak enpresak komunikatzeko eta segmentu-merkatuei bere balorezko proposamena helarazteko moduarekin lotuta daude. Hurrengo taulan gure proiektuaren kanalak ikus daitezke.

<p>WEB ORRIA</p> 	<p>Kanal garrantzitsuena izango da. Bertan atal hauek azalduko ditugu: gure proiektua, zertan datza, ordutegia, prezioak...webguneko atal batean proposamenak jartzeko aukera izango dute, adibidez, beraien gustoko tailerren bat proposatzeko aukera Web orrialdea hurrengoa da:</p> <p><a href="http://www.baserritu.es">www.baserritu.es</a></p>
<p>SARE SOZIALAK</p>	<p>Sare sozialen bitartez, gure proiektua mundura zabalduko dugu. Sare sozialen artean, Instagram, Facebook, Twitter, eta beste hainbat. Bertan argazkiak igo, egunerokoan egiten duguna, etorkizunean egingo ditugun ekintzak eta tailerrak, egongo diren aldaketak jakinarazteko erabiliko ditugu.</p> <p>Gure sare sozialak @baserritu deituko dira.</p>
<p>KARTELAK</p>	<p>Herritik zehar, ikastoletan, parkeetan eta inguruetan <u>kartelak</u> jarriko ditugu, gurasoek gure balio-proposamena zein den ikusteko. Bertan, proiektua zertan datza, ordutegia, prezioak eta informazio gehiago agertzen da, eta horrekin batera web orria eta sare sozialetako izena.</p>



## GURASOEN ELKARTEAK

Gurasoen elkarteei gure kartelarekin eta webgunearekin mezu bat bidaliko diegu, horrela euren artean zabaltzeko eta pertsona gehiagori heltzeko aukera izango dugu.

Guraso elkarteen bidez, informazioa jasoko dugu. Berbaro elkarte, Gerediaga elkarte, BIGE elkarte.